EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES

# LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILBURUAREN AGINDUA, EUSKADIKO MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN LEGE AURREPROIEKTUA EGIN AURRETIKO KONTSULTA IZAPIDEA BETETZEKO.

2020ko azaroaren 10ean Gobernu Kontseiluak "XII. Legegintzaldiko Legegintza Programa" onartu zuen. Plangintza-dokumentu horretan, Eusko Jaurlaritzaren datozen lau urteetako legegintza-ekintza jasotzen da, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Legea aipatuz.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Legearen aurreproiektua egiteko eskumena duen administrazioak, Lege horren izapidetzea bultzatzea erabaki du, eta, horregatik, nahitaezkoa da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1. artikuluaren arabera, xedapen arauemaile baten proiektua egin aurretik kontsulta publikoa egitea administrazio eskudunaren web-atariaren bidez;
horren bidez, etorkizuneko arauaren eraginpean izan daitezkeen pertsona eta erakunde adierazgarrienen iritzia jasoko da.

Kontsultak alderdi hauek izango ditu:

a) Ekimen horren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
b) Hura onartzeko beharra eta egokitasuna.
c) Arauaren helburuak.
d) Araudiaren esparruko eta araudiaz bestelako konponbide alternatiboak.

Horrela, eta aipatutako Legeak esandakoa betetzeko, mugikortasun jasangarriaren lege aurreproiektua egin aurretiko kontsulta izapidea bete nahi dugu, arauaren eraginpeko herritarrek eta gainerako eragileek aukera izan dezaten proposatzen den arauaren osaeran parte hartzeko eta ekarpenak egiteko, eta eragindako sektoreen artean ahalik eta parte-hartze eta adostasun handiena lortzeko.

Hortaz, kontsultak ezaugarri hauek izango ditu:

- Etorkizuneko arauaren eraginpean egon daitezkeen erakunde publiko, pertsona fisiko eta gainerako erakunde, entitate eta elkarte guztietara irekita egotea.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratzea.

- Hogei egun balioduneko epea ezartzea eragindako erakundeek, herritarrek eta entitateek egoki jotako iradokizunak edo oharrak aurkez ditzaten.

Era berean, jendaurreko informazioaren izapide hau Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek arautzen duten hastapen-fasearen barnean jasotzen da.

Horregatik guztiagatik, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen

Nahi izanez gero, J0D0Z-T2DM0-8HT1 bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den
ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: http://euskadi.eus/lokalizatzailea
Donostia – San Sebastian, 1 – Tel. 945 01 96 54 – Fax 945 01 98 56 – 01010 Vitoria-Gasteiz
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador
J0D0Z-T2DM0-8HT1 en la sede electronica http://euskadi.eus/localizador

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 11. artikuluak emandako eskumenei jarraikiz, honako hau

**EBAZTEN DUT**

**Lehenengoa.-** Euskal Autonomia Erkidegoko mugikortasun jasangarriaren lege aurreproiektua egin aurretik, kontsulta publikoko izapidea egitea.

**Bigarrena.-** Arauaren eraginpean diren herritarrek eta eragileek, egokitzat joz gero, Aginduaren Eranskinean jasotako alderdiei buruzko iritzia helaraz dezakete hogei egun balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita.

**IGNACIO MARIA ARRIOLA LOPEZ**

**LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOKO SAILBURUA**
Sinadura elektronikoa

## ERANSKINA

### 1.- Ekimen arauemaile honekin konpondu nahi diren arazoak

Egungo garraio-ereduak hausnarketa sakona eskatzen du, mugikortasun iraunkorraren kontzeptua kontuan hartuta, gizarte- eta ingurumen-arloko hainbat arazori erantzuteko.

Era berean, mugikortasun jasangarriaren kontzeptuaren helburua da EAEn pertsonen eta salgaien garraiorako garraio-sare integratu eta multimodal bat planifikatzea. Sare horrek, sare horren eraginkortasuna sustatzeaz gain, pertsonen bizi-kalitatea hobetuko du eta pertsonen eta ingurumenaren gaineko ondorio negatiboak minimizatuko ditu, joan-etorriak ondorio sozial eta ekologikoekin lotuz.

### 2.- Aldaketa onartzeko beharra eta egokitasuna

Mugikortasun Jasangarriaren Legearen aurreproiektuaren helburu nagusietako bat beharrezko plangintza-tresnak eta prozedurak antolatzea izango da, testu arauemaileak ezartzen dituen printzipio eta helburuetan oinarrituta. Horretarako, arau-esparru komun bat ezarriko da, gaur egun sakabanatuta dagoena, segurtasun juridikoa emango duena eta mugikortasun jasangarriaren eta pertsonen osasuna eta ingurumena sustatzeko eta babesteko politikaren arteko zuzeneko harremana sustatuko duena, betiere, arlo honetan EAEn dagoen konpetentzia-banaketa kontuan hartuta.

### 3.- Osatu asmo den proiektu arauemailearen helburuak

Mugikortasun iraunkorrari buruzko esparru juridiko integratua eta egungoa definitzea, garraio-eredu eraginkorra, behar bezala planifikatua, integrala, behar sozioekonomikoetara egokitua eta egungo sistemarekiko ingurumen-inpaktuak nabarmen murriztuko dituena.

Lurralde-antolamendu egokia sustatzea, administrazio publiko eskudunen plangintzan mugikortasun jasangarriaren aldagaia sartzen duena, hau da, zerbitzuak eta garraiobideak, beharrezko azpiegiturak eta lotutako gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-kostuak sartzen dituena.

Garraio-sare integratua, eraginkorra eta ekonomikoki iraunkorra eratzea, garraiobide moduen arabera esku hartzeko gaitasuna duten administrazioekin lankidetzan.

Garraio publikoa eta ingurumen-inpaktuak murrizteari eta energia berriztaezinaren kontsumoari lehentasuna ematen dioten beste garraiobide batzuk sustatzea.

Pertsonen eta salgaien garraioan intermodalitatea sustatzea, garraio publiko integratu eta koordinatuaren saretik hasita eta garraio tradizionalaren beharrak murrizten dituzten zentro logistikoak erabiliz.

Oinarrizko lehiakortasun-faktore bihurtuko den garraio-sare bat ezartzea, Euskadiko sare ekonomikoa hobetzeko, Euskadiko lurralde-oreka bultzatuz eta barneko eta kanpoko konektibitatea sustatuz.

## 4.- Araudiaren esparruko eta araudiaz bestelako konponbide alternatiboak

Aurreko ataletan azaldutako inguruabarrak ikusita, beharrezkotzat jotzen da izaera arautzaileko neurri zehatz bat prestatzea, beste konponbiderik ez delarik aurkitzen.

**ORDEN DEL CONSEJERO DE PLANIFICACION TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES, POR LA QUE SE SOMETE A CONSULTA PÚBLICA PREVIA LA ELABORACIÓN DEL ANTEPROYECTO DE LEY DE MOVILIDAD SOSTENIBLE DE EUSKADI.**

Con fecha 10 de noviembre de 2020, el Consejo de Gobierno aprueba el *"Programa Legislativo de la XII Legislatura", documento de* planificación que recoge la acción legislativa del Gobierno Vasco durante los próximos cuatro años, citándose en el mismo la Ley de Movilidad Sostenible de Euskadi.

El Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, administración competente para la elaboración del anteproyecto de Ley de Movilidad Sostenible de Euskadi, ha determinado el impulso en la tramitación de la citada Ley, razón por la que resulta preceptiva, tal y como recoge el artículo 133.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y con carácter previo a la elaboración de un proyecto de disposición normativa, sustanciar una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente, al objeto de recabar la opinión de las personas y organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura norma.

En concreto, la consulta se debe referir a los siguientes aspectos:

a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.
c) Los objetivos de la norma.
d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Así, y en cumplimiento de la citada Ley, se sustancia el trámite de consulta previa a la elaboración del anteproyecto de ley de movilidad sostenible, a los efectos de que la ciudadanía y demás entidades afectadas por la norma tengan la posibilidad de participar y realizar aportaciones a la norma que se plantea, en la búsqueda de la mayor participación y consenso entre los sectores afectados.

Por todo ello, la consulta:

- Se abre a todas aquellas instituciones públicas y personas físicas, así como organizaciones, entidades o asociaciones que puedan considerarse afectadas por esa futura regulación normativa.

- Se publicará en el portal web de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

- Se establece un plazo de veinte días hábiles para que las instituciones afectadas, la ciudadanía y sus entidades presenten todas aquellas sugerencias u observaciones que tengan por conveniente.

Asimismo, el presente trámite de información pública se imbrica dentro de la fase de iniciación que regulan los artículos 4 y 5 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones Normativas de Carácter General.

Por todo lo expuesto, en virtud de las competencias atribuidas por el artículo 11 del Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos

**RESUELVO**

**Primero. -** Someter a trámite de consulta pública, con carácter previo a su elaboración, el anteproyecto de Ley de Movilidad Sostenible de Euskadi.

**Segundo. -** La ciudadanía y entidades afectadas por la norma, que así lo consideren, pueden hacer llegar sus aportaciones sobre los aspectos planteados en el Anexo a esta Orden en el plazo de veinte días hábiles, contados desde el día siguiente al de su publicación en el portal web de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

**IGNACIO MARIA ARRIOLA LOPEZ**

**CONSEJERO DE PLANIFICACION TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES**

Firmado electrónicamente

ANEXO

**1.- Problemas que se pretenden solucionar con esta iniciativa normativa**

El actual modelo de transporte requiere de una reflexión profunda, observando el concepto de movilidad sostenible, al objeto de dar respuesta a distintos problemas de índole social y medioambiental.

Asimismo, el concepto de movilidad sostenible pretende la planificación de una red de transporte en la CAPV integrada y multimodal para el transporte de personas y mercancías, que, a la vez que promueva la eficiencia de la citada red, mejore la calidad de vida de las personas y minimice los efectos negativos sobre las personas y el medio ambiente, relacionando los desplazamientos con sus consecuencias sociales y ecológicas.

**2.- Necesidad y oportunidad de su aprobación**

Uno de los objetos principales del anteproyecto de Ley de Movilidad Sostenible será la ordenación de los instrumentos de planificación y procedimientos necesarios, en base a los principios y objetivos que establezca el texto normativo, fijando para ello un marco normativo común, actualmente disperso, que aporte seguridad jurídica y que promueva una relación directa entre la movilidad sostenible y la política de promoción y protección de la salud de las personas y el medio ambiente, todo ello observando la distribución competencial que en la presente materia existe en la CAPV.

**3.- Objetivos del proyecto normativo que se pretende elaborar**

Definir marco jurídico integrado y actual sobre movilidad sostenible que ofrezca promueva un modelo de transporte eficiente, correctamente planificado, integral, adecuado a las necesidades socioeconómicas y reduzca significativamente los impactos ambientales y sociales respecto del sistema actual.

Promover una correcta ordenación territorial incorporando la variable de movilidad sostenible en la planificación de las administraciones públicas competentes, esto es, los servicios y medios de transporte, las infraestructuras precisas y los costes sociales, medioambientales y económicos asociados.

Configurar una red transporte integrada, eficiente y económicamente sostenible en colaboración con las administraciones con capacidad de intervención según los modos de transporte.

Fomentar el transporte público y otros medios de transporte que prioricen la reducción de impactos ambientales y el consumo de energía no renovable.

Potenciar la intermodalidad en el transporte de personas y de mercancías, a partir de una red de transporte público integrada y coordinada y de centros logísticos que reduzcan las necesidades del transporte tradicional

El establecimiento de una red de transporte que se erija como factor de competitividad básico para la mejora del tejido económico de Euskadi, impulsando el equilibrio territorial de Euskadi promoviendo la conectividad interior y exterior.

**4.- Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias**

Dadas las circunstancias expuestas en los apartados precedentes, la elaboración de una medida específica de carácter normativo se presenta como necesaria, sin que puedan apreciarse otras soluciones alternativas.